En este nuevo **Landeia**, los y las delegadas de ELA se van a ver reflejadas más cerca y van a encontrar una herramienta más útil para hacer su trabajo diario en los centros de trabajo. Haber centrado el foco y haber apostado por esa cercanía obliga a una mayor concreción: hay que afinar el tiro. Es tarea de quienes hacemos **Landeia** acertar con lo que de verdad necesita saber la militancia

# Nuevo Landeia, más cerca, más útil

de ELA en cada momento y ante cada conflicto.

**Landeia berri honetan,  
ELA kideok gure burua gertuago  
ikusiko dugu islatua, eta tresna  
erabilgarriagoa izango dugu lan  
zentroetan gure eguneroko lanari  
ekiteko**

La frecuencia bimestral (serán seis números al año) no permite seguir la actualidad más inmediata, pero es que hace tiempo que las revistas -y en buena medida, los periódicos- han perdido esa carrera ante internet y las redes digitales. Frente a la inmediatez y al bombardeo de titulares y opiniones (parciales y muchas veces precipitadas y confusas), este nuevo **Landeia** debe aportar perspectiva y criterio político y sindical.

Por otra parte, para el seguimiento más inmediato de la actividad de ELA contamos con una renovada página web (ela.eus), con sus

apartados para las comarcas y territorios (así como federaciones, áreas), adonde incorporamos decenas de contenidos cada día (noticias, álbumes de fotos, agenda, vídeos, artículos de opinión...). Para que ese caudal informativo llegue a toda la afiliación, estamos desarrollando herramientas digitales de modo que cada militante de ELA reciba aquellos contenidos más cercanos y útiles. Tendréis noticias.

Esto ya supone un reto importante, pero ELA no se conforma con ello. Como iréis comprobando en los próximos meses, el sindicato completará su servicio informativo a toda la afiliación con otra publicación bimestral que ampliará el foco más allá de los centros de trabajo, con el objetivo de perfilar ese nuevo modelo de sociedad que necesitamos: hay alternativas sociales y ELA quiere ser su locomotora. Pero no adelantemos acontecimientos. De momento, tenéis el nuevo **Landeia**.

El de siempre, como nunca. ■

## ERREDAKZIO TALDEA

**Zuzendaria:** Iván Giménez.

**Koordinatzailea:** Gorka Quevedo.

**Idazlariak:** Nerea Ispizua, Nagore Uriarte, Haimar Kortabarría, Xabier Harluxet, Ainhara Plazaola eta Aiala Elorrieta.

**Itzulpen lanak:** Bixen Fernández Amezagaga.

**Argitarazle:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

**www.ela.eus · landeia@ela.eus**

# Tolosaldea BUS GREBAN

Hitzarmen duin baten alde.

TOLOSALDEA BUS GREBAN!!  
DIRU PUBLIKOAREKIN PREKARIETATEA  
FINANZIATZEN ELA

Kaleratzerik EZ!!!

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# Zerbitzu juridikoak, ekintza sindikalerako ezinbesteko tresna

2017an nabarmen handitu zen zerbitzu juridikoek zabaldutako espediente kopurua

## > Gorka Quevedo

Bizi dugun abagune honetan, zalantzarik gabe langileen babesik sendoena ELAk eskaintzen duena da. Eta hor, noski, ezinbestekoa da zerbitzu juridikoen lana. Milako espediente zabalik –9.795–, epaiketa andana irekita –5.848–, hamaika garaipen epaitegietan... 2017ko datuak dira.

Datu garrantzitsu eta esanguratsuak, agerian uzten dutenak iragan urtean lan gatazkak handitu zirela –zabaldutako espedienteen kopurua %12 handitu zen–. Egoera honi aurre egiteko ELAko zerbitzu juridikoak daude, alorreko jurisdikzioaren inguruko ezagutza zabala duen profesional taldea.

Zerbitzu juridikoak ELAren ekintza sindikalaren funtsezko atala dira. Euren helburua afiliatutako pertsonak aholkatzea eta defendatzea da, laneko alorrean zein gizarte segurantzaren alorrean aurkezten dituzten galdera eta erreklamazioei erantzuna emanez, dagokien instantzia administratibo eta judizialtan egin diren eskarien tramitazio eta defentsa bere eginez. Zerbitzu Juridikoek, bai bide administratiboan bai auzitegi kontentzioso-administratiboan eta Orden Sozialaren auzitegietan defendatzen dituzte langileak.

ELAko zerbitzu juridikoetako koordinatzaile Iratxe Ordorikak



azpimarratzen duenez, “defentsa juridikorako eta aholkularitzarako profesionalak daude ELAn, dituzun laneko arazo guztiak konpontzeko. Pertsona hauek

**La deriva de los derechos de la clase trabajadora es enorme. Todos los años los servicios jurídicos trabajan con miles de expedientes laborales que abarcan todo tipo de ataques a las y los trabajadores**

zure galderak erantzun, erreklamazioak bideratu, instantzia ezberdinen aurrean aholkatu, epaitegi eta laneko administrazio auzitegietan defendatuko zaituzte. Prozedimendua luzea edo korapilotsua bada ere (helegiteak, aurka egiteak eta abar), Zerbitzu Juridikoaren araudian zehazten denari jarraituz, gure profesionalen laguntza ez zaizu ezer kostako. Gure zerbitzu juridikoak doakoak dira, afiliatu 6 hilabete eman eta gero”.

Zerbitzu juridikoen lana oztopoz beteta dago; konplexutasun juridiko handiko garaiak bizi ditugu. Langileok gero eta eskubide gutxiago ditugu, eta egunero irakurri litezke langileen eskubideak narriatzen dituzten

# CONSULTORIO JURÍDICO

## Responsabilidad patrimonial de la administración y el 5%

La Sentencia 143/2015 del Tribunal Constitucional de 22 de junio de 2015 declaró la inconstitucionalidad del artículo 23.9 de la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, de presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2010. En dicho artículo se establecía la reducción de un 5% en el salario del personal laboral no directivo de las sociedades públicas.

Teniendo en cuenta que quienes se vieron afectados por tal reducción reclamaron frente a la misma y sus demandas fueron desestimadas por sentencia firme –con anterioridad a la declaración de inconstitucionalidad de la ley que, precisamente, amparó legalmente tales descuentos salariales–, y conscientes de que el art. 40 de la Ley Orgánica 2/1979, de 3 de octubre, del Tribunal Constitucional impide revisar procesos fenecidos mediante sentencia con fuerza de cosa juzgada en los que se haya hecho aplicación de las leyes inconstitucionales, muchos de los trabajadores/as afectados/as por tal reducción salarial articularon otra vía para recuperar el salario detruido: plantearon reclamaciones de indemnización basadas en la responsabilidad patrimonial de la Administración por las cantidades que fueron descontadas con anterioridad a la declaración de inconstitucionalidad.

Pues bien, la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en reclamación de una afiliada de ELA, ha resuelto en una sentencia del pasado 12 de febrero –que reproduce los fundamentos de otra de 24 de enero– desestimar la reclamación de responsabilidad patrimonial planteada.

Dicha resolución judicial señala que cuando la propia sentencia del TC no contenga pronunciamiento alguno sobre los efectos de la declaración de inconstitucionalidad de una Ley, corresponde a los jueces y tribunales ante los que se suscite la cuestión decidir definitivamente acerca de la eficacia retroactiva de la declaración de inconstitucionalidad. Sin embargo, el TSJ apunta a que en este caso existe un pronunciamiento explícito por parte del TC en cuanto a los efectos de la resolución declaratoria de inconstitucionalidad, en el sentido siguiente: "...resulta necesario pronunciarse acerca del alcance de nuestra declaración de inconstitucionalidad y nulidad que... queda modulada para preservar no sólo la cosa juzgada sino también las posibles situaciones administrativas firmes".

La conclusión de la Sala de lo social del TSJ, en relación a la reclamación efectuada, es que la situación jurídica había devenido definitiva, por existir sentencia firme con el valor de cosa juzgada. Es por ello que el tribunal determina que en la presente reclamación de responsabilidad patrimonial se incumple uno de sus requisitos básicos para que la responsabilidad patrimonial de una administración pública pueda concurrir, cual es la antijuridicidad, ya que los daños correspondientes al período reclamado, anterior al 31/07/2015, no son daños antijurídicos y ello deriva en la obligatoriedad de soportarlos. En definitiva, que la fecha de publicación de la Sentencia del TC (31/07/2015) marca el día a partir del cual ha de reconocerse el derecho de los trabajadores afectados a recibir el sueldo no minorado.

A pesar de tratarse de una Sentencia que resuelve la reclamación de una afiliada y no ser firme, cabe anticipar que el resto de reclamaciones de responsabilidad patrimonial en las que se dan estas circunstancias serán resueltas en este mismo sentido desestimatorio.

En 2017 aumentó considerablemente el número de expedientes abiertos por los servicios jurídicos, lo que refleja la gran conflictividad laboral del pasado año (9.795, un 12% más)

albistek. Testuinguru honetan, ondo formatutako profesionalak izatearen garrantzia azpimarratzen du.

"Esperientzia handiko taldea da ELAko zerbitzu juridikoena, eta hori nabarmentzea oso garrantzitsua da. Gainera, ezin dugu ahaztu ELAk eskualde guztietan dituela erreferentziako kideak zerbitzu juridikoetan; horrek gertutasun handia ematen digu gure militante eta afiliatuekiko. Erreforma ezberdinen ondorioz langileon eskubideen galera ikaragarria da, baina oraindik baditugu hainbat eskubide. Horietan sakontzea da langileak babesteko dugun modurik onena, eta horretan zerbitzu juridikoek lan aparta egiten dute".

# Pobreziari gerra

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurka garatuko duen Legegintzako Herri Ekimena aurkeztu du. Helburua kalitatezko babes sistema publiko eta soziala lortzea da



Irudia erdian Janire Landaluze, ELAren azterketa bulegoko kidea, pobreziaren aurkako herri ekimena erregistra erregistratzen Eusko Legebiltzarrean

## > Gorka Quevedo

Soberan dago esatea pobrezia gurean dagoen arazo larria dela. Datu ofizialei erreparatu besterik ez dago; milaka eta milaka dira Euskal Herrian pobrezian bizi diren pertsonak. Egoeraren larritasunaz jabetuta, datozen hilabeteetan Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurkako Legegintzako Herri Ekimena (LHE) garatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako parlamentuetan.

Eusko Legebiltzarrean otsailaren 22an erregistratu zen LHEa; orain bertako mahaiak hilabeteko epea du herri ekimen hau teknikoki aztertu

eta bete beharreko baldintzak jasotzen dituen erabakitzeko. Nafarroan, berriz, aurki aurkeztuko da. Ekimenak Eusko Legebiltzarrean aurrera egin ahal izateko gutxienez 10.000 sinadura behar dira; Nafarroan, berriz, hauteskunde eroldaren %1a, hots, 5.000 sinadura inguru. Parlamentu hauen mahaien tramiteak gaindituta, ekimena apirila eta ekaina bitartean garatzea da helburua.

Herri ekimen honek hainbat neurri zehatz jasotzen ditu; helburua bermatutako gutxieneko diru-sarreraren politikak hobetzea eta etxebizitza duin baterako eskubidea izatea da. Hego Euskal Herriko erakundeek badituzte gai hauen

inguruan herritarrak babesteko dituzten politikak garatzeko eskumenak; soilik borondate politikoa behar da horretarako. Bada garaia erakundeak gehiengoaren bizi kalitatea hobetzeko neurrien esanetara jartzeko.

Hamaika arrazoi daude Legegintzako Herri Ekimen hau garatzeko. Azken urteetan politikak pobrezia eta gizarte bazterkeria areagotu dute. Eskubide eza, soldata kaskarrak, prekarietatea, emakumeen diskriminazioa, gazteak kaltetzen

**La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria ha presentado la Iniciativa Legislativa Popular que ha desarrollado contra la pobreza y la exclusión social. El objetivo es conseguir un sistema público y social de calidad**

dituzten politikak, pentsioen eta prestazioen etengabeko murrizketak... Gurean gero eta zabalduago dauden gaitzak dira hauek.

Gaur egun hainbat dira Hego Euskal Herrian ditugun prestazio sozialak, baina begi-bistakoa da ez direla nahikoa pertsona orori gutxieneko bizi-baldintza duinak bermatzeko. Prestazioak eskuratu ahal izateko

baldintzak gero eta zailagoak dira, eta horien beharra luketen hiru lagunetik bat kanpo geratzen da; gainera, prestazio horien zenbatekoa pobrezia mailaren azpitik daude.

### **Eredu ekonomiko eta sozial alternatiboa helburu.**

Hori da, finean, herri ekimen honen asmoa: bizitza erdigunean jartzea. Horretarako hainbat neurri zehatz jasotzen ditu. Batetik egun pertsona batek hilean jaso dezakeen gutxieneko diru-sarreraren kopurua nabarmen handitzea proposatzen da, eskubide horretara behar duen orok sarbidea izateko neurriak ere jasoaz, inor baztertuta izan ez dadin. Bestetik etxebizitzaren arazo larriari aurre egiteko neurriak ere biltzen dira. Etxebizitza duina izatea ezinezkoa da egun milaka lagunentzat gurean.

Gure gizartearen kohesioa ezinezkoa da bere zati gero eta handiago bat bertatik kanpo geratzen bada. Inork ez du oparirik egiten. Ditugun prestazio eta eskubide apurrak urte luzetako borroka eta mobilizazioari esker lortutakoak dira. Aurrera jarraitu nahi badugu, ez dago beste biderik.

La ILP propone un aumento notable de las prestaciones recogidas en la actual RGI: una persona por hogar 858,6 euros (ahora 644,49), dos personas 1.287,8 euros (ahora 827,59 euros) y tres personas o más 1.717,1 euros (917,47 euros).

## Una ILP muy necesaria

**Janire Landaluze**  
Gabinete de Estudios

Los niveles de exclusión social y pobreza en Hego Euskal Herria son más que preocupantes. Las políticas públicas de corte neoliberal, las reformas, la crisis económica, el aumento progresivo de la precariedad laboral, los recortes, etc. han provocado que cada vez sean más los sectores de la población con insuficientes recursos económicos para hacer frente a niveles mínimos de bienestar (disponibilidad económica, vivienda, energía, alimentación, desarrollo infantil, ocio y cultura).

Cada vez es mayor el fenómeno de trabajadoras y trabajadores pobres, que no llegan a fin de mes, que son víctimas de la pobreza no visible, como la energética, farmacéutica, o la pobreza infantil. La discriminación se perpetúa aún más en el caso de las mujeres en un mercado laboral segregado profesionalmente y que impide la necesaria autonomía económica que permita desarrollar un proyecto de vida independiente.

Que decir de la juventud; tiene totalmente limitado el derecho a un empleo que les garantice una vida que merezca la pena ser vivida, sufren elevadísimas tasas de desempleo y precariedad, crearse un proyecto de futuro les resulta del todo imposible.

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria plantea un modelo económico y social alternativo al neoliberal, poniendo en el centro la defensa de la vida y del planeta por encima de los intereses de una minoría, la preeminencia del trabajo respecto al capital y las personas respecto al mercado.

Son necesarias políticas públicas efectivas y reales de reparto equitativo de la riqueza, creación de empleo de calidad (que sea socialmente útil, estable y con una remuneración justa), así como la necesidad de generar políticas de reducción y reparto del tiempo de trabajo. Es imprescindible considerar el trabajo en toda su amplitud, integrando el trabajo productivo y el reproductivo.

Dentro de este modelo alternativo, vemos necesario adoptar medidas que vayan encaminadas a garantizar y mejorar los derechos sociales, atajando la pobreza y la exclusión social. Para ello planteamos la necesidad de modificar:

- La Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, con el fin de dar marcha atrás en los recortes aplicados en los últimos años en la Renta de Garantía de Ingresos, así como para mejorar la cobertura de dicha RGI y de las Ayudas de Emergencia Social.
- La Ley de Vivienda, para que el reconocimiento del derecho subjetivo de acceso a una vivienda de alquiler social sea real, obligando a las instituciones a dar respuesta a las necesidades sociales.



> **Xabier Harluxet**

Atherbea Ipar Euskal Herrian langabezian, baliabide eta aterperik gabe zailtasunetan diren pertsonen bergizarteratzeko xedearekin harrera segurtatzen dien elkarte da. Pantxika Ibarboure, elkarteko zuzendariordeak Atherbearen ibilbidea eta migranteei buruz daraman lan berezia aurkezten digu. Frantses Estatuan "aterpe eta immigrazioa" lege proiektu zapaltzailea parlamentuan eztabaidatuko den une honetan Atherbea, apirilaren 20 eta 21an, Etorkinekin kolektiboarekin eta Bizi! mugimenduari 'Immigrazioa bestela pentsatu, hemen berean ekin' foroa antolaketa lanean dabil.

Atherbea elkarte 1954. urtean sortu zen aterperik ez duten jendeari harrera egiteko. Atherbearen garapena, bereziki azken bi hamarkadetan, laguntza sozialen dibertsifikazioa bultzatuz egin da, besteak beste gizarteratze helburua indartuz eta babes eskaera egiten duten migranteei harrera eginez. Pertsona bakoitzaren behar berezietan erantzunez. Atherbeak sare zabal

# Atherbearekin, duintasuna berreskuratu

Pantxika Ibarboure, langabezian, baliabide eta aterperik gabe bizi diren lagunentzako Atherbea arreta elkarteko ordezkaria

batekin osagarritasuna bilatu du elkarlana eta kooperazioa sustatuz tokiko elkarteekin. Gaur egun 140 langilek eta hainbat bolondresek segurtatzen dituzte Atherbearen zerbitzua. Urtean zehar, Atherbea elkartera 3.000 pertsona hurbiltzen dira eta gauero 300 pertsona aterpetzen ditu.

Gaurko demografiaren aldetik, Ipar Euskal Herria Akitaniako bigarren bizi eremua bilakatu da, 308.000 biztanleekin eta %12,2ko pobrezia tasarekin. Hots, 37.000 jende dira pobrezia egoera batean bizi. Pobrezia masifikazio baten aurrean gaude, pobrezia isila itsuski normalizatzen delarik (norbaiten etxean biziz, gairik beteak diren bizitokietan, squat batean, hotelean, oihalezko etxean, autoan, akanpalekuan...). Jendetza babesarako sozial politikak hiru desafio nagusi ditu bere aurrean: bizitoki soziala, gabetuak direnentzat babesa soziala eta migrazioa.

Urte bukaerako legedian, Gerard Collomb barne ministroak azkarki jo du larrialdi zentroetan dagon baldintza gabeko harrera printzipioa. Pertsonen kontrola administratiboa baimentzen du, nazionalitatearen arabera, jendartearen bereizketa eta kanporaketaren helburuarekin. Mugimendu azkar bat antolatu da Frantses Estatuan eta Estatu Kontseiluan legedi horren kontra dei egin da.

Azken aldietan mehatxupean den migrantea, 'mehatxatzailea' bilakatu da! Testuinguru horretan, Atherbeak migranteen behin behineko bi harrera toki ideki ditu, 2015ean Baigorri eta 2017an Baionan. Bi esperientzia horietan, Herriko Etxeen engaiamendua baikorra izan da. Duintasuneko baldintzak segurtatzea izan da helburua, baldintza materiala egokia, segurtamen psikologikoa zainduz eta eskubideen bide administratiboa profesionalki eramanez. Elkar bizitza, ingurumenaren ezagutza, gizarte zibilean integratzea prozesu osoan sartua da. Horretan, 100 bat boluntariok/militanteek eraman dute lana gurekin, baita tokiko hamar bat elkarteek. Ipar Euskal Herrian, zentroetan harrera egiteaz gain, hamarnaka etxe ideki dira migranteei harrera eta babesa emateko eta hori hainbat elkartei esker. ■

En Iparralde 37.000 personas, el 12,2% de la población, vive en la pobreza; Atherbea es una organización que trata de ayudar a todas las personas sin recursos



# Lau izarretako garaipena

## Fundazioaren Izan Ta Esan bildumaren azken aleak Bilboko Occidental hotelako lan gatazka aztertzen du

### > Aiala Elorrieta

Inoiz sentituko zenuten etxetik kanpo egon zaretenean, hotel bateko gelan sartu eta erabat liluratuta sentitzea norbere etxean topatzen ez dugun txukuntasunarekin. Garbitasuna, ordena eta tolesturarik gabeko izara zuri-zuriak ohe gainean. Baina, zer ezkututzen da xahutasun horren atzean? Nahiago genuke magiaz iratxoek egin dutela sinistea, baina jabetu gaitezen txukuntasun horrek estali ohi duen lan prekario eta ikusezinduz.

Kontatzera goazen gatazka lan hau egiten duten emakumeen greba da: 2017ko martxo hasieran, Bilboko Barcelo-Occidental hotelak gelak garbitzeko azpikontratatu duen Samsic enpresako emakume langileena, hain zuzen. Gatazkaren beste muturrean, gelen garbiketa outsourcing bidez azpikontratatu duen enpresa dago, subrogazio eskubiderik ez duena eta Ostalaritza Hitzarmena aplikatzeari muzin egin nahi diona. Ezaugarri hauek sektore prekarizatu eta feminizatu gertatzen direnean, eztanda egiteko moduko osagaiak dauzkagu.

Azken urteotan ostalaritzak martxan jarritako estrategietako bat da outsourcinga. Geroz eta sektore gehiago dira outsourcingaren bitartez lanpostuak externalizatzen dutenak, azpikontratatuak enpresak miseria baldintzetan bereganatu ditzaten. Outsourcingak esan nahi du hotelak azpikontratatu duen enpresaz aldatzen duenean, langileak kalera joateko aukera handiak dituztela. Outsourcingak esan nahi du hoteleko plantillako langileak dituzten lan baldintzak baino nabarmen prekarioak izatea.

La colección Izan Ta Esan pretende dar voz a las y los trabajadores en conflicto; el último número analiza la victoria sindical lograda en el Hotel Occidental de Bilbao

2017ko martxoaren 31an, azpikontratazioaren epea amaizera zihoanean, Samsicen lanean ari ziren emakumeek mehatxua jaso zuten. Hotelak jakinarazi zien ez zituztela hotelean nahi: gelen garbiketa zerbitzua Constant enpresaren esku lagako zutela eta kalera joango zirela. Constant ezaguna da hotel askotan ostalaritza hitzarmena aplikatu ordez langileei enpresa hitzarmena aplikatu ohi dielako. Hau da, 800 euro tara iristen ez diren soldatak, gela bakoitzeko 2,22 euro eskas.

Samsiceko bederatzi langileentzat azpikontratazioaren iraungitzeak beraien lanpostuak kolokan jartzen zituen erabat: kaleratuak izango ziren. Egoeraren larritasunaz jabetuta, haietako zazpi ekin zioten grebari sindikatuaren babesarekin.

**Lau izarreko hotelaren aurrean, lau izarretako garaipena.** Lehen bi izarrak, akordioaren edukiekin lotuta daude: subrogazio eskubidea lehena eta Ostalaritza Hitzarmena aplikatuko zaienaren bermea bigarrena. Honek soldatetan eta baldintzetan egonkortasuna bermatzen die. Hirugarren izarra gatazka langileen antolakuntza eta sindikalizazioari egin dion ekarpenari dagokio. Laugarrena, berriz, garaipenak ostalaritzan zehazki eta zerbitzuen sektorean orokorki daukan proiektioari egokitu zaio. Garaipen honek erakutsi digu posible dela geroz eta sektore prekarizatuago batean aurrerapausoak emateak, badagoela outsourcing-aren aurrean langileen eskubideak bermatzerik, badagoela soldata duinagoak defendatzerik, badagoela lanpostuen egonkortasuna zaintzerik. Emakume hauek grebari izaera feminista eman dion ahalduz prozesu oso garrantzitsua bizi izan dute; beraien lan baldintzak eta interesak negoziatzeko ahots bilakatu dira.

(Oharra: Izan Ta Esan bilduma Manu Robles-Arangiz Fundazioaren web orrialdean eskuratu liteke).





# Resistir es Crear, Resistir es Transformar

ELA participó activamente en el Foro Social Mundial 2018 que tuvo lugar en Salvador de Bahía (Brasil) del 13 al 17

## > Gorka Quevedo

La ciudad brasileña de Salvador de Bahía acogió del 13 al 17 de marzo una nueva edición del Foro Social Mundial. Una cita a la que acudió una delegación de ELA y en la que hubo espacio para la búsqueda de alianzas con diferentes sindicatos y organizaciones sociales en la lucha contra la precariedad, el cambio climático o los acuerdos de libre comercio e inversión. Esta edición la aportación de ELA estuvo basada en estos tres ejes principalmente.

### **Sistema de la deuda: Su relación con actual Modelo Productivo. Resistencias y Alternativas.**

Mikel Noval, responsable de política social, participó en una actividad que

a iniciativa del CADTM (Comité para la Abolición de las Deudas Illegítimas) y ACD (Auditoría Ciudadana de Brasil) analizó el tema de la deuda pública, con el objetivo de hacer una evaluación de las estrategias de las luchas contra el sistema de la deuda, que se ha transformado en un instrumento de saqueo en la fase actual de la acumulación capitalista.

Durante su exposición Mikel Noval denunció que, "la deuda pública es un mecanismo privilegiado de la expansión capitalista de concentración, desigualdad y opresión. Es un instrumento de dominación utilizado por las élites del poder económico global para someter a los pueblos y la naturaleza".

### **Tratados de Libre Comercio e Inversión.**

"Los Tratados de Libre Comercio e Inversión que se han negociado y que se están negociando no pretenden liberalizar el comercio sino recortar los derechos laborales, sociales o medioambientales existentes" Así de tajante se mostró Laura González de Txabarri, responsable del Área Internacional, en su intervención sobre los Tratados de Libre Comercio e Inversión.

Laura González de Txabarri destacó que estos acuerdos en el fondo son un ataque a la democracia, y que además se está gestionando desde el oscurantismo. Por eso recalcó la necesidad de la movilización a nivel internacional para luchar contra estos tratados que tan graves consecuencias tienen para la clase trabajadora.

### **Solidaridad con el Sahara Occidental.**

El tercer eje en el que participó ELA fue la defensa de la lucha del pueblo saharaui para su liberación. Nuestro sindicato mantiene desde hace años una colaboración con UGT Sario, sindicato saharaui con el que ELA mantiene una estrecha relación de amistad. Este año ambos sindicatos denunciaron el muro que Marruecos está construyendo para encerrar al pueblo saharaui.

Una denuncia cuyo objetivo es exigir al gobierno de Marruecos que haga caso a los requerimientos que, tanto desde el ámbito internacional como desde distintas plataformas sociales, culturales y políticas, se le vienen realizando para que acabe con la violación de los derechos humanos, y también de los civiles y políticos, en los territorios ocupados. ■

**ELAren ordezkaritza batek parte hartu zuen Brasilen antolatutako Munduko Foro Sozialean**

Gipuzkoako bulegoetako garbikuntzaren negoziazioa aukera bikaina da sektoreko soldata arrakalarekin amaitzeko

## Soldata arrakala: ekintzarako unea

> Gorka Quevedo

Otsailaren 22a soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko eguna izan zen. Oraindik orain, mundu osoan bezala Hego Euskal Herrian ere, gizon eta emakumeen arteko soldata arrakalaren datuak oso larriak dira. EAEn emakumeek gizona baino 7.552 euro gutxiago irabazten dute urtean (%24,29), eta Nafarroan, 8.164 euro gutxiago (%28,41).

Hitzetatik ekintzetara igarotzeko unea dela sinetsita ELAk agerraldia egin zuen martxoaren 13an Donostian. Bertan soldata arrakalaren aurrean urrats zehatzak emateko deia luzatu zuen sindikatuak. Eta, horretarako, aurten irekita dagoen sektore bat hartu zuen oinarri: Gipuzkoako bulegoetako garbikuntza.

Bulegoetako garbikuntzak Gipuzkoan duen arduradun Mirari Irurek azpimarratzen duenez, soldata arrakala eman dadin bi faktore nagusi daude: zaintza lanek sortzen dituzten eraginak eta emakumeek egiten dituzten lanen balio txikiagoa. "Arazoa ez dago diagnostikoan, arrakalari aurre egiteko neurri zehatzak behar ditugu. Gipuzkoako bulegoetako garbikuntzako langileek, kale garbikuntzakoekiko 1.000 eta ia 6.000 euro arteko diferentziak daukate oinarriko soldatan, bulegoetako langileen kaltetan, kalem lan egiteak eragiten dituen lantsari osagarriak alde batera utzita. Kale garbikuntzako langile gehienak gizona baino gutxiago irabazten dute emakumeek".

Bulegoetako langile asko eta asko administrazioak emandako emakidetan edo Confebask-eko kide diren enpresetan lan egiten dute. Horregatik Irurek dei egiten die administrazio eta patronalari soldata arrakala horrekin amaitzeko mahai bat osa dadin eta berritzu behar diren hitzarmen kolektibo guztietan soldata goerak finantzatzeko dirua jar dezaten.

"Gure ustez soldata arrakalari buruzko eztabaida desitxuratzeko asmoz sortu dute martxoaren 20rako deitutako zen Elkarrizketa Sozialerako foroa. Soldata

El 22 de febrero se celebró el Día Internacional por la Igualdad Salarial. Un problema global que en Euskal Herria tiene también graves consecuencias. En la CAPV las mujeres ganan de media 7.552 euros menos que los hombres (un 24,29%, 31.088,99 euros de los hombres frente a 23.537,06 de las mujeres), y en Navarra 8.164 menos (un 28,41%, 28.727,37 frente a 20.563,08).

arrakalaren atzean dagoen eztabaida despolitizatzen saiatzen ari dira, horregatik ez dute lan esparru zehatzik ezartzen, eta berdintasunerako dei hutsalak egiten dituzte. Soldata arrakalaren aurrean dauden eragileek aukera paregabea dute urrats zehatzak emateko. Bizkaiko zahar-egoitzetan 370 greba egun egin behar izan genituen 1.200 eurotako soldata ziurtatzeko, administrazioek ez ziotelako zaintza lan horri zegokion balioa eman nahi. Gipuzkoako bulegoetako garbikuntzan aukera dute Martxoaren 8an zerbait ikasi zutela erakusteko. Ez badute zentzu horretan ezer egiten greba horretan ezer ikasi ez zutenaren seinale izango da. Hitzetatik ekintzetara igarotzeko unea da". ■





Garazi Arrula: “Los discursos esencialistas no responden a las necesidades lingüísticas de cada lugar”

Sustrai Colina: “Quiero vivir en euskara, pero también vivir con los que no saben euskara”

Garazi Arrula eta Sustrai Colina euskaren inguruan solasean aritu ziren Iruñeko Katakra-en, Juan Kruz Lakastak gidatuta

# Periferian euskaraz bizitzeko grina... eta mugak

> Iván Giménez

“Azken Bertsolari Txapelketa Nagusian, balentria latza erdietsi zenuen, izan zinela hiru garren postura iritsi egin den lehenbiziko arrotxapearra” bota zion Juan Kruz Lakastak Sustrai Colina bertsolariari, otsailaren 28an Iruñeko Katakra-aren antolatutako solasaldian, dozenaka lagunengandik hasita. Pasadizo honek erakusten du euskara, eta batez ere bertsolaritza, nola ikusten eta bizitzen diren euskal periferian. Batzuetan umorez, besteetan minez, baina beti etsipen edo frustrazio puntu batekin.

Manu Robles-Arangiz Fundazioak eta ELAk antolatutako solasaldi horretan Garazi Arrulak, idazle tafallarra, ere parte hartu zuen, eta pasadizo umoretsu batzuen artean, garrantzetako bat ere kontatu zuen: “Tafallakoa izanik, neska eta euskalduna, behin batean norbaitek ‘eta guapa’ gehitu zuen nirekin hizketan. Une hartan, ezustean harrapatu ninduen eta ezin eman nion erantzun borobil bat, baina

hori bezalako egoerei buelta nola emateko argudioak jorrazteko pizgarria zen”. “Holakoetan, beltza eta transexuala izatea falta zaizu”, gaineratu zuen Juan Kruz Lakastak, solasaldiaren gidari lanetan ibili zen kazetaria. “Angela Davisek zioen bezala, hiru aldiz errebelde dela beltza, emakumea eta komunista izateagatik”, Garaziren erantzuna.

Solasaldi horren aitzakia Sustrai Colinak botatutako bertso bat izan zen: “Euskal Herria gelditu ez dadin euskal erdian, bila ditzagun arnas eta ardatzak periferian”. Jakina da Urruñetik (jaiolekua) Iruñera bizitzera etorri zela duela urte gutxi, “hau da periferiatik periferiara zentrotik pasa gabe”, baina azpimarratuz, “gaur egun gauzarik interesgarrienetarikoa euskal periferian gertatzen ari dira”.

Bestetik, Garazi Arrulak gogora ekarri zuen nola, oso gazte zenean, txundituta geratu zen Tuterako Nafarroa Oinezean kartel bat irakurri zuenean: ‘Erdaraz barra-barra, euskaldun kaxkarra’. “Diskurtso esentzialista hark ez zien erantzuten

tokian tokiko beharrei” eta ez liguke batere lagunduko euskararen sustapen lanetan. Ildo beretik, gogoratu zuen beste Nafarroa Oinez, Tafallan ospatutakoa. “Kazetari batek idatzi zuen jende andana bildu zela, nahiz eta Tafalla oso urrun egon. Nondik eta norentzat urrun?” Galdera hori funtsezkoa da, nork bere buruari zintzo egin behar diona.

Hala ere, idazle tafallarrak oso argi utzi nahi zuen ez zaiola gustatzen “zapaldumetroa aktibatzea; nik ez dut nahi periferian egon, horrek ez du gure helburua izan behar, behintzat; periferian aritzea bidea izan daiteke, baina inondik inora helmuga”. Sustrai Colinak pragmatismoa aldarrikatu zuen, etsipena ala frustrazioa kudeatzeko tresna bezala: “Euskaraz bizi nahi dut” leloarekin ados nago, baina nire errealitatea guztiz bestelakoa da; euskara ez dakiten jendearekin bizi naiz, eta haiekin bizitzen jarraitu nahi dut. Hori kudeatzeko beharrea gaude, eta agian zerbait irabazteko, zerbait ere galtzeko prest egon behar dugu”. ■

Trantsizio hau ez badugu guk modu justu eta ekologikoan egiten beste batzuek interes ekonomikoen mesedetan egingo dute

# Ekonomiaren beharrezko trantsizio sozial eta ekologikoa



## > Ainhara Plazaola

Sufritzen dugun krisi sistemikoak beharturik, eta justizia sozial eta ekologikoa helburu, ELAn ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala nolakoa izan behar den hausnartzen hasi gara aspaldi. Hazkundearen ekonomiatik eta kontsumo eta ekoizpen eredutik irteera ordenatua egiteko 'Ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala' dokumentua garatu dugu, beste ekonomia eta gizarte eredu baterantz. Lehentasuna iraunkortasunak, kalitateak, elkartasunak eta herritarren parte hartzeak izango du. Lan sektoreen eraldaketa eta enplegu berdeak dira proposamenaren ardatza. Hemen otsailaren 27an Bilbon 'Industriaren trantsizio ekosoziala' goiburuarekin egindako jardunaldian ELAk aurkeztu zituen ideia nagusiak jasotzen dira.

**Lan sektoreen eraldaketa.** Etorbizunean desiragarriak izango diren sektoreak eta baztertu beharrekoak bereizteko irizpide ekologikoak aplikatu behar dira. Hau da, energia eta materia neurrigabe erabiltzen duten sektoreak murriztu edo eraldatu.

Sektore produktibo guztiek erabiltzen duten energia eta materiala murriztu behar da, planetaren mugen arabera izatera iritsi arte. Eraldaketa honen helburua sektore iraunkorren aldeko apustu ekonomiko eta politikoari esker enplegua sortzea da. Beharrezkoa da energia eta lehengai kontsumoan oso intentsiboak diren sektoreetatik hain intentsiboak ez diren sektoreetara enplegua lekualdatzea.

Eraldaketa honekin enplegu desiragarria sortzen da hainbat sektoretan: zaintzan, zerbitzu publikoetan,

merkataritza jardueretan, ekonomia sozial eta solidarioan, ikerketa eta garapenean eta enplegu berdeetan.

**Enplegu berdeen sorrera.** Eraldaketaren zutabe garrantzitsua dira. Iraunkorrak ez diren enplegu galerari oraindik garatu gabe dauden sektore iraunkorretan sortuko diren enpleguek erantzun behar die, enplegu berdeek. Gakoa dira ekoizpen eredu ordenatu eta progresiboan aldatu eta planetaren mugak errespetatzen dituen eredu egokia lortzeko. Enplegu hauen sorrera langabezia eta eskusio sozial eta ekonomikoaren aurka egiteko modurik eraginkorra dira.

Enplegu berdeek hainbat jarduera hartzen dituzte: ingurumen kalteak gutxitu edo zuzentzen dutenak, ondasun eta zerbitzuak ingurumena zainduz ekoizten dituztenak, prebentzio eta kontrol lanak, produktu eta prozesuen ingurumen modernizazioan ari direnak, pertsonen bizitza kalitatea bermatzen eta hobetzen duten zerbitzu publikoak...

ELAren ikerketa batek ondorioztatu duenez Hego Euskal Herrian 100.000 enplegu berdetik gora sortzeko aukera dago hainbat sektoretan: batez ere eraikinen birgaitze lanetan, energia sektorean, mugikortasunean, hondakinen kudeaketan, agroekologian eta industrian. Eraldaketa hau behetik eta ezkerretik bultzatzen ez badugu beste batzuen esku geratuko da. Hauek interes ekonomiko handien mesedetan egingo dute, eta ez langileon eta gizartearen beharren arabera. Eraldatzea bai ala bai gertatuko da, kontua da nola egingo den. Hau dugu jarraitu beharreko bidea, sindikalismoaren erronkarik handienetakoa. ■





## La lucha contra la pobreza será el eje del Primero de Mayo

Al igual que estos últimos años ELA ha organizado una doble cita para el Primero de Mayo, en Bilbo y en Iruñea. Este año la lucha contra la pobreza será el eje central de este día de lucha y reivindicación.

La cita en Bilbao será a las 11:45 en el Sagrado Corazón; en Iruñea a las 12:00 en la Plaza de la Cruz. Después de las manifestaciones reivindicativas del mediodía, habrá comidas populares en ambas citas, donde, además de la comer, habrá ocasión para pasar un buen rato junto a las y los militantes de ELA.

## ELA llama a participar en las movilizaciones a favor de unas pensiones dignas

ELA anima a toda su militancia a participar activamente en las movilizaciones organizadas en favor de unas pensiones dignas. El debate sobre pensiones es un debate sobre el reparto de la riqueza. Y, sin duda, el nivel de riqueza existente en nuestra sociedad permite mejorar las pensiones.

ELA se ha movilizado en distintas ocasiones para denunciar las sucesivas reformas de pensiones. En 2011 convocamos una huelga general en contra del retraso de la edad de jubilación a los 67 años y del recorte de las nuevas pensiones. Estas medidas fueron acordadas por Zapatero, CCOO, UGT y la CEOE. En 2013 convocamos otra huelga general contra los nuevos recortes en las pensiones planteados por Rajoy.

ELA reclama que se deroguen los recortes en pensiones aprobados en 2011 y 2013; que se garantice su poder adquisitivo; la vuelta a la edad de jubilación a los 65 años, y la mejora de las cuantías de las nuevas pensiones, sobre todo la de las más bajas.

ELA, además, considera imprescindible que el sistema de pensiones se decida y gestione en Euskal Herria. Para avanzar por ese camino debemos forzar la voluntad política; el camino es la movilización social.

## Greba eta mobilizazioak itunpeko irakaskuntzan

ELAk –LAB, Steilas eta CCOO sindikatuekin batera– greba eguna deitu zuen martxoaren 20rako Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan. Aurki hamar urte beteko dira azken lan hitzarmena sinatu zenetik. Honek, agerikoa den bezala, ondorio larriak ditu bertan diharduten langileen lan eta bizi baldintzetan. 2009an zeuden lansari taulak ez dira eguneratu, honek %13,6ko eros-ahalmenaren galera suposatu duelarik. Kristau Eskola eta AICE patronalek ez dute negoziatzeko inolako borondaterik. Dagoeneko mahai negoziatzailearen hamarnaka bilera egin dira, eta ez dira apenas mugitu.

ELAk argi du ez dagoela mobilizatzea beste biderik. Zentzu honetan, martxoaren 20ko deialdiarekin batera, azken asteetan mobilizazio ugari egin dira sektorean.



## ELA no firma el ERE de Siemens Gamesa ante la negativa de la empresa a garantizar el empleo

Los y las delegados de ELA en Siemens Gamesa no han firmado el ERE que articula el Plan de Salidas Voluntarias y Prejubilaciones puesto en marcha por la empresa.

La sección sindical de ELA ha cuestionado desde un inicio la necesidad del ajuste y ha perseguido conseguir las y los trabajadores de Hego Euskal Herria condiciones similares a las de los/as compañeros/as alemanes y franceses.

ELA se reafirma en su compromiso por seguir luchando para garantizar la estabilidad y un futuro a la plantilla similar a la que la multinacional ha acordado en Alemania y Francia.

### Acuerdo en Productos Kol: neutraliza la reforma laboral, reduce la jornada y mejora el poder adquisitivo

ELA logró el 6 de marzo un acuerdo con la dirección de Productos Kol, empresa situada en Sangüesa y dedicada a la fabricación y comercialización de almohadas, edredones, cubre-colchones y artículos textiles para el hogar.

El acuerdo neutraliza los elementos más regresivos de la reforma laboral y contiene los siguientes elementos: ultraactividad indefinida, imposibilita la inaplicación del convenio, subidas salariales por encima del IPC, reducción de jornada de 8 horas, ampliación de la prima de producción al colectivo de oficinas...

ELA quiere felicitar a la plantilla de Productos Kol, una plantilla feminizada que ha demostrado que las plantillas que se organizan pueden disputar espacios de poder a las empresas para mejorar sus condiciones laborales.



## ELA reivindica el valor de las luchas sindicales para construir una nación de iguales, euskaldun y libre



El Comité Nacional de ELA ha aprobado una declaración con motivo del Aberri Eguna del 2018 en el que el reivindica el valor de las luchas sindicales para construir una nación de iguales, euskaldun y libre. El documento remarca que frente a los discursos que dan por amortizadas esas luchas, y frente a quienes las consideran un estorbo para el progreso, ELA considera que el sindicalismo sigue siendo un instrumento esencial de resistencia, al tiempo que un factor ineludible de democratización y justicia.

“Las luchas que hemos liderado a lo largo del último año –la mayor parte de ellas con resultado exitoso– y la saña con que empresas y administraciones las han combatido, nos reafirman en nuestra convicción más sentida:

que el sindicalismo sigue siendo una herramienta útil frente a este sistema económico y social ajeno a nuestras aspiraciones nacionales y de clase”.

La declaración también hace una obligada referencia a Cataluña. “Nos urge sacar conclusiones de lo sucedido. La más importante enseñanza a nuestro entender es que la bilateralidad no existe. Lo anunció hace años el general Armada, cuando dijo que el golpe de estado de 1981 no había fracasado. Quería decir con ello que allí se establecieron, mediante un pacto tácito, los límites del desarrollo autonómico, igual y uniforme para todas las regiones de España. Cualquier intento de revisar al alza el nivel de autogobierno o reclamar el reconocimiento nacional resulta intolerable. Sucedió con la propuesta de nuevo estatuto político defendida por Ibarretxe y ha sucedido ahora en Cataluña. Y a partir de ahí, lo que hay es unilateralidad, la del estado, que se impone por la fuerza”.

## El 26 y el 27 de abril, Día mundial de la Seguridad y Salud en el Trabajo

La relación directa entre precariedad y siniestralidad y la necesidad de poner fin a esta auténtica lacra social serán las ideas en las que ELA incidirá en el día Día Mundial de la Seguridad y la Salud en el Trabajo.



Con este motivo, ELA celebrará con sus delegados y delegadas sendas jornadas formativas y reivindicativas en Iruñea, el próximo 26 de abril, y en Bilbao, el 27.

# XXI. MENDEKO ESKLABUAK



**H**araba Konate ELAk Abadiñoko Fundiciones Ur Artea Enpresa Txiki Ertainean duen delegatua da. Malin sortua, 2007an Euskal Herrira etorri zen; egun lurretan bizi da. Argazkiaren erdialdean ageri da. Bere eskuinean Elhaddi Thior dago; ezkerrean, berriz, Idrassa Thior. Elhaddi eta Idrassa Senegalen jaio ziren. Hirurak Ur Artea galdategiko langileak dira.

## Enpresa hitzarmena helburu.

Bizi zuten esplotazio egoeraz nazkatuta Ur Arteako langileak antolatzeari ekin zioten.

Lehendabiziko urratsa hauteskunde sindikalak deitzea izan zen; langileek hala erabakita Haraba Konate da ordutik euren ordezkaria. Hurrengoa euren lan eta bizi baldintzak duintzeko borrokari ekitea izan zen.

Ez dutela beste munduko ezer eskatzen azpimarratzen du Konatek. "Gure lan-baldintzak arautuko dituen enpresa hitzarmen duin bat eta kaleratutako langileen behartzea nahi dugu, besterik ez. Argi dagoena da ezin dugula orain arte bezala jarraitu, esplotazio egoera gorrian. Egunean hamar orduz aritzen gara lanean, sarri askotan astelehenetik igandera. Lan-

egutegirik ez dugu, ostiral askotan asteburuan lanera joan behar dugula esaten digute, beharraren arabera. Ezin dugu inolako bizitarik antolatu. 2011. urtetik ez dira gure soldatak eguneratu. Aparteko-ordu horiek ez ditugu kobratzen. Gutxieneko lan osasun eta segurtasun neurriak ere ez ditugu bermatuta. Uste dugu hamaika motibo ditugula protesta egiteko".

## Greba mugagabeen.

Enpresaren zuzendaritzaren aldetik erantzuna etsigarria izan da. "Enpresak ez du gurekin elkartu nahi ere egin. Egoera ekonomikoa ona da enpresan, irabazi nabarmenak ditu, eta lan baldintzak asko hobetzeko tarte egon badago. Arazoa da nahiago dutela egungo eredu mantendu: euren patrikak betetzen jarraitu langileon zapalkuntzaren trukean. Prekariatatearen bidez lortzen dituzte horrelako irabaziak. Eta, helburu hori errazago lortzeko Afrikatik edo Errumaniatik etorritako lagunak kontratatzen ditu".

Egoera honetan, langileek greba mugagabea hasi zuten otsailaren 12an. "Ez dugu etsiko gure helburuak lortu arte. Eta ziur gara lortuko dugula, garaipena lortzeko tresna guztiak ditugulako: aurrera jarraitzeko kemena, antolakuntza eta ELA bezalako sindikatu bat".



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129